Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Petra Goiti Goiti

Mañaria, Bizkaia
(1929-2018)



Aurkibidea

Biografia



Arrueta auzoko Uxarte baserrian munduratu zen 1928. urtean. Gurasoak ere Mañarikoak zituen. Gerra garaian, aita frontean izan zuten eta ama kartzelan. Gazterik utzi zuen eskola, eta etxeko nagusiena zenez, etxeko lanetan hasi zen eta Santa Apoloniara (Iurreta) joan zen umezain pare bat urtez. Gerora, lau urtez egon zen Durangoko San Faustoko Simona tabernan neskame lanetan, baita ezkondu ostean ere. Gizona Garaikoa izan zuen eta bost seme-alaba hazi zituen.

Zintak

MAN-017

- **Proiektua**: Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-24
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

MAN-018

- **Proiektua**: Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-24
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Durangon neskame

- **Erref**: MAN-017/002
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:01:08. **Bukatu**: 00:04:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Durangora ezkondu zen bertan egon baitzen neskame, San Faustoko taberna batean. Ezkontzak eta bestelako ospakizunak ospatzen ziren bertan. Gero gurasoen etxera, Mañarira, joan zen bizitzen.

2. Doña Anatasia maistra ona

- **Erref**: MAN-017/004
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:07:23. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Gerra aurreko oso akordu gutxi ditu Petrak. Doña Atanasiagaz ibili zen eskolan, oso maistra ona. Gerran beste irakasle batzuk etorri ziren, baina gerora berriro bueltatu zen doña Atanasia.

3. Eskolan ikasitakoak

- **Erref**: MAN-017/005
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Maistra ere euskalduna izan arren, eskolak erdaraz jaso zituzten. Cara al Sol abestea ezinbestekoa zen. Batuketak, kenketak eta biderketak ikasi zituen, zatiketarik ez, ordea.

4. Baserriko lanetan eskolara barik

- **Erref**: MAN-017/006
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:11:54. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Etxeko nagusiena izan zenez, askotan baserriko lanetan gelditu behar izaten zen eskolara joan barik. Pozik geratzen zen etxean.

5. Aita frontean, ama kartzelan eta umea kendu

- **Erref**: MAN-017/007
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:12:52. **Bukatu**: 00:15:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra sasoian, denbora askoan egon ziren aitaren berri izan barik, frontera joana baitzen. Mañariako hainbat andre eraman zituzten kartzelara, beraien ama ere tartean. Uritik ekarritako umea zuten, adoptatutakoa; eta, kartzelan

amarekin zegoela, gaixotu eta kendu egin zieten. Petra eta bere neba-arrebak osaba-izekoekin gelditu ziren.

6. Aitak izandako zoriaren beldur

- **Erref**: MAN-017/009
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:18:47. **Bukatu**: 00:20:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Bere aita frontean egon zen gerra zibilean. Otxandion harrapatu zuten eta Mañariko kanposantura ekartzen zituztenez bertako hildakoak, bertara joaten ziren ea aita han zegoen ikusteko; gerora, onik azaldu zen.

7. Eskolan txapel gorriagaz

- **Erref**: MAN-017/010
- **Iraupena**: 0:06:45. **Hasi**: 00:20:41. **Bukatu**: 00:27:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Nazionalak sartu ostean, eskolan txapel gorria janzten zuten. Beraiek, umeak, zirenez, ez zekiten zein zen txapel gorriaren esanahia. Behin Mañariko gizon batek ea txapel hori aitak eman zion galdetu zion. Komentario hori betiko izan zuen barruan gordea, eta handik urte askotara Petrak gogorarazi zion karlista zen gizon horri.

8. Gerraren ondorioak: ezkutatu beharra, ondasunak galtzea...

- **Erref**: MAN-017/012
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:27:47. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Kobagorri kobazuloan ezkutatzen ziren gerratean, egun osoa pasatzen zuten bertan. Herria milizianoz bete zen eta baserrietatik ibili ziren eskean.

9. Gosea

- **Erref**: MAN-017/013
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:33:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean gosea ezagutu zuten. Astoz joaten ziren errotarik errotara, askotan ez zuten irinik lortzen-eta. Tabirako (Durango) okindegian ogi-txuskoa ematen zien, txarra eta txikia.

10. Garia eta artoa udaletxera eroan behar

- **Erref**: MAN-017/014
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:33:31. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean gose izan arren, baserriko jeneroa udaletxera entregatu behar izaten zuten: garia eta artoa.

11. Morokila, arto-zopak...

- **Erref**: MAN-017/015
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:36:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Irinagaz taloa eta morokila egiten zuten. Gariarenarekin ogia ere egiten zuten. Morokila zelan egiten zuten azaltzen du. Morokila eta arto-zopak onak ei dira osasunerako.

12. Eskolako bidaia Donostiara

- **Erref**: MAN-017/018
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:39:09. **Bukatu**: 00:42:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Bere ama baserrietan aritzen zen beharrean, artajorran, ira ebaten... Aitak ere lan egiten uten eta horrela dirua lortzen zuten. Eskolatik Donostiara egin zuten irteera. "Que buenos son los maestros de Mañaria" abesten zieten bidaia egiteagatik. Gerraostean bere lehengusua izan zen maisua.

13. Umezain beharretan

- **Erref**: MAN-017/020

- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:44:02. **Bukatu**: 00:46:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Iurretako Santa Apolonia auzoan umezain lanetan aritu zen, bi ume zeuden familia batean. Gustura egon zen. Bere nebak ere morroi lanetan aritu ziren.

14. Neba-arreba denak morroi edo neskame

- **Erref**: MAN-017/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:46:33. **Bukatu**: 00:48:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bera umezain eta bere nebak morroi bezala aritu ziren. Etxeko denak etxetik kanpo zeudenez, Gabonetan batzen ziren eta elurra zela-eta arazoak egoten zirenez, denak batu arte ez ziren lasai egoten.

15. Gabonetako ilusioa

- **Erref**: MAN-017/022
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 00:48:38. **Bukatu**: 00:53:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Gabonetarako ilusioa izaten zuten: etxeko denak batu, afalosteko karta-jokoa, jateko berezia (olio-aza, karakolak, bisigua...), erregenetako gozozko sugeak... Umeek ez zuten oparirik jasotzen, zapatetan fruta apur bat izanez gero konformatzen ziren. Gutxirekin egoten ziren gustura.

16. Dotrina gerra aurretik, jaunartzea ostean

- **Erref**: MAN-017/024
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:53:26. **Bukatu**: 00:55:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Dotrina elizan jaso zuen, baina tartean gerra etorri zen eta lehen jaunartzea gerraostean Otxandiotik etorritako don Agustin abadeagaz egin zuen.

17. Umeak izan ezean bekatu

- **Erref**: MAN-017/026
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:56:43. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Ezkondu ostean ere konfesatu behar izaten ziren, eta asko beldurragaz beste leku batera joaten ziren. Petra Durangoko jesuitetara eta Andra Marira joandakoa da. Gizonagaz zer egiten zuen galdetzen zioten, helburu nagusia umeak izatea baitzen.

18. Haurdun ez geratzeko txertoa

- **Erref**: MAN-017/027
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:58:56. **Bukatu**: 01:02:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdun ez geratzeko ez zuten babesik jartzen. Don Jaime medikuak txertoa eman zion, berak bere buruari jartzen zion hilabetero. Ezkondu aurretik ere harremanak izatea gauza naturala zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com